Nola guizon ala emacomeac vicio lotsamangarrien iyarturic eta zoraturic vizi-modu gaizto ichusiantan. Ah ezter aurrera seguichu nai eta isildu naidet, ainbeste gauza nazcagarriec nere mingaña ziquindubañolen, eta ala ere esan deche Erroma zela mundu guzien jabe bacarra. Baita ere icusicodegu besterribat eta erriartan icusidugu guizonaren obra miragarrie arte guzietan. Grecia daizenzayon erriontan ikusico ditugu munduco guizonic jaquinsuenac. Etaño ala erria nola bestia, bat bere jaquinduri guziequin eta bestia vere podere guziequin icustenchugu gentiltasunean galduric, au da, ezdute ezaozen Jaungoicobat bacarra dela eta bat bacarric adoratu viardubela, eta asmazenchute ezincontala Jaungoico eta gusto guzicoac eta acaso alebatian siñestatu gabe.

Icusico ditugu barace batian velaunicaturic baachuribat adora zen. Eta ezta izango denborartan Jaun eguiazcoaren conocimentue duenic (?). Bai cristauac bada erribat eta au ezta guria baizic euscalerria, denborartaco gau illunac eta erromaco viciyoac galdunaichute euscaldunaren viciyoac vaña oc bulcazenchute veregandic eta an gaueco izalian illargiaren arguitasunean chistuaren soñuan mendico isiltasunean illberrico denboran, danzazendie beste gendiac baño Jaun ondiaco baten honran, baño izenic ezonen Jaun bat Da Jaun goicoa, es Jupiter vezela deslayala ez Venus bezala desonestoa, ez mozcorra Baco bezala, baizic goico Jauna, ez lapurra Mercurio bezala ez olacobeste gendearen moduco divinidadeac bezala, baizic goico Jaun edo Jaungoicoa, emen beitic loyequin ziquindugabea. Izagaco iturrifrescoac sortuazichuena eta Iratico mendiyar ariz arbolac (los robles) jasozichuena. San Donato eta Aralar mendiyar elurres zurizenchuena, gure mendico tontorrac iruzquie ateabatian eta berroquei milla egun guchitan eta lecu artan vertan jasozendute S. Cernin deizendiogun eliza. Modu ontan paatuzuen cristauac leyaltasuna, baño ongi bere Jaungoicoagatic peleatu ondorian, eta campotarra zen costumbre gaizto eta batezere erromatarren vizio ichusiaren contra, baiñ eta berriz ederqui peleatu ondorian.

Horra emen itz guchitan gure aurrecoaren istorie gozo eta consolagarrie, ona emen gure aurrecoac uzi zibun herencie ederra eta esan eztechiquen moduan guayen semeac honrazengaituena.

Orrengatic esaten dizutet! euscaldunac denborartaco gizon gloriosoayen semeac! Baldin ayen odolac zuen gorputzeco zefiac bustizenbaditu, ez zaitela lotsatu euscaldunac izateaz, baizic izandayela au zuen orgulloric ondiena. Eta ayen modura guerra zuec gure etsayari, gure fede santu gure izcunza eta costumbre zarraren etseyeri, gure artian viziyo eta gaztanquerie sartuaichutenari! Zergatic oc sarzenbadi-re ah! orduan gure gurasoac madaricatucoagaichute, eta Jaungoicoac berac alde egiñen du gure ondotic. Badequizute zer egiten zuen aitabatec vere seme naturalac galdu ondorian, au vera egiten du Jaungoicoac bere seme maiteac galdu ondorian beste bazuec adoptazenchu.

Denborac berac eracustendigu egui tristea, urte ascoz honratuzichuen Jesucristoc Oriente erriac gogoz ayen ertian eotean, ayec ongi servizenzuten bitartian, baño asi zien gero Jesus ofendizen vere vizio eta pecatuequin eta zer eguin zuen? Pasatu zen Orientetic Occidentea uzten zichuela cisma eta erejetasuean sarturic.

Occidenteco erritan or daude Alemanie eta Inlaterra eta zergatic eztu esanbear or dago gure egunetan Francie gure aldemena; gauz miragarrie, norc esanbiarzuen Francie ainbeste distinguitu ondorian Berengario Calvino eta hereje guzien contra ain triunfo ederrac conseguitu ondorian elleatu biar zela gauco egunian Elizama santutic apartazera eta Jesucristo vera escolatic elizetatic eta baitaere viozetatic despeizera.

Ah nere cristauac asi zien Jaungoicoas aztuten, vizio eta pecatuec aumentatuzien eta zer eguin zuen Jesucristoc? utzizichuen eta juanzen beste erribazutera eta an irruti zan chino eta japonasaren artian opatuzichuen adorazale berriac. Beguir a ezdabilen guequi besteainbeste guertatu. Denbora gaiztoac eldudakizgu nere cristauac andic eta emendic eldidie gure contra etseyec eta aldeguzitatic atacazendute descansoric gabe, denoc daquizute nolaco gauza losamangarrie —religioaren— izandu dien Barcelonan ogañic asco ezdela (1) eta macurraoecoac dire guertatucodienac.

Ezta gaurco egunian Elizac sufrizenduen persecucioa lendavizico iru siglotan sufrichuzuenta bezela, denborayetan ilzen zichuten cristauaren gorputzac sufrichue-raztencichietela tormenturic iqueragarrienac. ¿baño zer conseguizenzuten? conseguizen zutena zen cerua santuz betezea eta lurrean cristauac aumentazea. Alaco moduan ere Tertulianoc esatenzuan “Cruciate, torquete aterite nos, plures eficimus quoties metimur a vobis, semen esta sanguis cristianorum”. A tormentatu, erre, zatichu eta pusquetuquechazue, zenbatenes gueyago ilzen gueran gueyago guera. Acie da cristauaren odola: baño gaurco egunian sobra dequite ez dutela modu ortan ezer conseguichuco, badaquite cristaubaten odola isurizenden lecuac, cristau berriac izengodiela, eta orrengatic uztenchute paquian gure gorpuzac eta perseguienchute gure animac, nola gure aurrecuac uzigun erencie ederra gendu nayez, gure religioya eta fedea gendu nayez, burle egitendutela sacramentu santueri, burle egitendutela Elizaco gauzeri, mille enbuste eta gaiztenqueri escribichu eta esanaz Jaungoicoaren ministroaren contra sacerdotearen contra eta ola vorondatiac galzenchuk eta viozac corrompizenchute eta movimendu eta pasiyo gaiztoac alchazen dire, Jaungoicoas aztuzendire, vere vildurtasuna galzendute eta orra or galduric guizonac eta vaitaere erriac ere cristauac.

Orrengatic esatendut gauco egunian berrituda lenago Lucifer eta San Miguelek izanduzuten peleye aldebatetic Miguel cristau onaquin bestetic Lucifer gaiztoaquin.

Ezazutela pensatu peleyatugabe cerua alcanzazea: non coronabitur nisi qui legitime certaverit. Noequin peleyatu naizue zuec? Ah badaquit denoc S. Miguelequin nauzutela eta pensamentuonec poztuzenau. Miguel aingueruen principe gloriosua ona eman erribat zure ejemploa seguizeco prest (ontaraco indarrac-ez), ona emen vere historie ederrac manazendiona eguitera prest, ontaraco indarrac viar ditu, fuerteac dire etseyec baño eztu importa, zu balinbazera Generala seguro dago, bada zu zauden lecuac an dago Jaungoicoa eta Jaungoicoa arrequin balibeda nor arren contra. Si Deus pro nobis, quis contra nos, bedincadezazu bada cerutic asita izandezan guride

---

(1) Ez da agertzen noizkoa denik itzaldi hau. Barzelonako “Semana Trájika” 1909.ean izan zen. Horretaz izan liteke hemen esaten duena.

diche mundu ontan gure animaren etseyen contra peleatuondirian, gure buruac coronaturic icusteco ceruan. Amen.

Testo Eripe me de inimicis Deus meus etabinsurgentibus in me libera me. Nere contraetic eta nere etsai guzitatic libranazazu nere Jaungoicoa. David Erreguearen izac salmo berrogaita amairugarrena eta versiculo vigarrena.

B.—Guchitan gaur aibeteco gustoaquiñ iyon naiz pulpitora Jaungoicoaren izan manifestazeco intencioaquin eta egiaz nola nequez arquizendien munduan bi persona bata besteari guztiz igual edo berdiña baizic bacuzac baditu besteac ez dituen gauza asco, modua berian ez dire erri eta fameli guziac berdiñac eta distinguidichuen gauzaren izcunza da dudaric gabe principalenetic bat eta orrengatic zuec eta ni euscaldunac gualaco, erribatenac guera famelibat bacarra anayec guera eta nor ezta poztuzen beren anayen artian arquizendenian eta ayen izcunza garbi aita eta amarengandic aur guiñela icasi guiñuen izcunza ederrontan izegitean? Zer guertazen zayo bere erritic campora eta m(a)itazendituen persona eta amarengandic vicienarri?

Ala dagon bitartian luce eguitendazquo gauec eta egunac, eztio ereri atseguiniñ arzen eta beti dago pensazen noiz betecodazquion egunac canpotic atera eta bere ichera, bere gurasoac, bere senideac, bere aasquideac eta ezagunac ecustera joateco. Au da nerequin guertazendena eta nere biotza gozotasunes betezenda zueri nere ausquera maitian iz egitean.

Zorionecoac euscaldunac, zorionecoac bai zergatic Españolco bandera maitearen izalean jarzendien gurien artean, guc guardatu eta conservatu degun, an irrutiyan lendavico denboretan guizonac elcarri a(d)izera emateco equinzichuten itzac, eta itzaiequi famatu guinduen guzien, gure fede santua defendizeco, beti lenvicoa izanduzen erriaren izcunza.

Elizari eta gure aurreco gurasoari zor degun itzcunza. Elizari eta gure aurreco guraso gloriduri, ain valeroso eta gogorrac extrangeri edo campotarraen guerra eguitean, nola bere independencie, bere libertadeac fuero eta bacartasuna defendizean; bada izcuntzac Antonio de Nebrija jaquinsuan ederqui esan zuen bezela Imperio edo errinuari lagun eguitenbadio, eusquera eta euscaldunac munduan izateac ezindaobequi eracusten du izandudela euscalerribat, baño ez nolanaicoa, ez beste erribaten mendian eoteco jayoa, baizic bere libertade eta fueroaquin; eta erdera, nere aguzale maiteac, ezen formatu erromatarrac Españolco jabe izan ziren denboran, zergatic emen seitan eun urtez erromatarrac izandubazien jabe, denbora luzeagos izandu zien moruac edo belzac deizendienac au da arabetarrac, bada Españen vicitu zien zorzitan aun urtez, eta erdera orai den bezela izabiarrean, au da latiñetic sortua biarrean, izango zen beste modu batera, izango zen arabearren anza edo iruribat eta orregatic dudaric eztago Elizari zor diotela Religiyoa Erreinue eta izcuntze.

Baño gauz triste eta negargarria, cristauac, guchidie gaurco egunian eusquera egiaz maitazendutenac eta icustendet biotza oñazez urreturic aztuzen aidela secula iñongo beste izcuntza generoric sartu biarzen tierrontan, eta au gertazenda zergatic ez dequizuten ongui zer dauquezuten ichean, ez daquizute ongui zer den eta zenbat eta zenbat balio duen gure ausquera maitagarriac, ezta ere ez dezute comprendizen zer esan nai duen izcuntzau galceac, zergatic au galzeaquin baita ere galzendie arri juntazendien gauzasco validoenac: gure historie izanic aiñ ederra, gure costumbre zarrac izanic aiñ onac eta hoc galduric malicie eta gaiztaquerie zabalzenda eta oztuzenda gure fedea eta Religioa bera guchizenda; orregatic precisoa da gure fedea vici

guardazeco gure costumbre zarrac eta gure izcuntze guardazea; izan gaitzen gure gurasuac izan zien vezela eta vici gaitzen ayec vicizien bezela.

Nere cristauac, San Miguel aingeruac ceñen festa gaur eguitenduzuen, deseazendu eta bera dijoa aurretic ejemploa emateac, gure aurreenac beste mundutic au bera escazendute eta au da nic zuengandio conseguitu nainuquena nic gaur goizian, conservatu gure izcunzare quin batian gure Religiyoa, gure fedea. Jaungoicoari layaltasuna eta guerra inperuari eta gure artian costumbre gaizto eta moda madaricatu ta gaiztanqueria sartu naichute guziari.

Baño aurrera seguizeco biar dut ceruco laguntasuna escatudeza gun Jaungoicoari paazendegula vitarteco aingeruaren erreguñia eta esandezagun viotzetic Avmaria.

(Primero lo de Jaungoicoa; 2.º la lucha; 3.º si a pesar de todos nuestros pecados nos convertimos nos perdonará. Tomado del Planas pág. 186.)

Denoc daquigu aingueruac zer diren espiritu zorionecuac, ceruan daudenac Jaungoicoaz gozazen eta berac eguincituen Eliza gobernazeco eta baita ere erriac eta guizonac, baño batezere eguinzituen bera alabatu eta bedincazeco, eta ontaraco eginbazituen eta guztiz poderoso eta aberasa baldinbada Jaungoicoa eta bere gauza guzietan ain miragarrie. Zer izango ote dire, cristauac, nola ezta izango oyen glorie, nolacua ayen onditasune eta nolacua aingueru guziayen edertasuna, eta ala ere izandu zan bat bere onditasuna ikusita Jaungoicoari esquerrac eman bearrian, ederraonai izan zuene izatia eta soberbie gaiztobatez ichuturic nai izan zuen Jaungoicoa aibat izatia, eta orgulloz beteric alchazenda vere contra esaten.

(Ez du geiago idazten; hartutako gaia, buruz, idatzi gabe, aurrera eraman zuen nunbait.)

*Eta orain advertenciebat.* Festac ez die jarri ampuzuarteño jateco eta erateco baizic erroco patronoa (2) biarbazelahonrazeco, ezta geizqui zerbait divertizea baño diversioac izanbeardie onac inocenteac eta honestoac, ez zenbait bezela tabernan beanduaño egon ondorian aterazendi azquenian zapela galduta guerricobanda galzera, carrica guzie asco ez dutela esquiñ batean ezatera, nola zoraturic dagon uste du errico etche guzieq, vere inguruan vueltaca davilzela eta espera dago noi pasatucoden bere ichea, burus bera sarzeco, eta burus bera sarzen da, baño ez bere ichean, erreca-renbatian baizic, diversiyoac izenbeardie honestoac inocenteac; eta orain nerea mutilleri:

Ah zenbat aldiz honratu bearrean ofendizenda Jaungoicoa eta au batezede ger-tazenda alaco danza genero nasietan, canpotic sartu dien danza nasietan, gure aurre-coac ez zuten olacoric ezaotu, eta ain inocenteac zien ayen danzac ere escuric elcarrí ez icuzeagatic, aterazenzichuten pañueloac eta bi puntetatic artuta ibizenziren, baño gaurco egunian, oh! baldin denborarteco guizonenbateg burua jasocobalu enterratic dagon lecutic eta icusi gaurco danza madaricatuac, zeñ laster cristauac, zeñ laster sartucolizeque berriz losaturic bere sepulcroan, baiñ eman duen izari faltazendue naiduelacos, baquizuten zer den, Fariseo, hipocrita, guezurtibat, ez det uste iñorc ere aiñ flore ederric errecibitunaico duenic!

(2) Lakuntzako patronoa San Sahastin da, ez S. Mikel; 1909.ean, Urriaren 10.ean izen-datatu zen Mikel Aingerua, Euskal Herriaren Zaindari; beharbada hortik doa.

Bada acordazaita denbora asco ezduela Misionistac danzarengatic esanzichuen gauzes, eta acorda zaitie ogranican obequi garayartan emanziñuen izes, ogañic ez da nic dequitela misiondorian festac izanduchuten erritan, danzatu zainbat danza genero, eta arrozabiarequin esperatut ez zaeta ez gaur da ez secula danzatuco bals dainzendioten danza ichusiartan, advertencioc eguiñchizutet zergatic orain bezela festa denboran azquen predicazea izandunizean erri ondibatian (erdaldunaren) guelditu desconsolaturic, ango musique amabost edo amasei gizon bere instrumentuaquin eta ango danzac ikusinichuenian eta orduan asmoa artunuen eozin lecutan partetan ellazenbanizen predicazera, advertencioc eguin gabe ez jesteco, gaur cumplitudet eta uste det, urte baño gueyago, seguro nago zuec ere cumplihuco duzuela, eta ola honratuco duzuela biarbezela S. Miguel zuen patronoa eta baitaere berak onratuozaitue guzion Jaungoicoaren aurean egunen batian. Amen.

## **BLAS ALEGRIAREN LIBURU ETA ESKU-ESKRIBUEZ**

*Lakuntza, 1983-II-19*

*Luis Igueltz*

Nik orain irakurri behar dizkizueten orriak garrantzi gutxikoak izan ahal dira hotz-hotzean hartzen baditugu. Behar bada, Blas Alegriari omenaldi honetan gauza ederragoak esan beharko litzaizkioke.

### **ARCHIVO PARROQUIAL DE LACUNZA**

#### **Fondo Vasco**

##### **A) Impresos vascos**

1. “Doctrina Christianaren Explicacioa” de D. Josph Ochoa de Arin. Villafranca de Guipúzcoa, 175 págs., editado el año 1713 en la casa de Pedro Ugarte en Donostia.

2. “Jesús, Maria ta Joserren Devocioa” de Agustín Cardaberaz, 234 págs., impreso en 1766 en la editora de Martín Joseph Rada en Pamplona.

3. San Ignacioren Ejercicioak, 1.<sup>a</sup> parte (faltan las primeras hojas) y “Ondo Iltzen Icasteko eta ondo Iltzen Laguntzeko Ejercicioak” 2.<sup>a</sup> parte, de Agustín Cardaberaz, 284 y 108 págs., editado en 1816 en la Editora de Francisco de la Lama en Tolosa.

4. “Ondo Yltzen Ykasteko eta Ondo Yltzen Laguntzeko Ejercicioac” de Agustín Cardaberaz, 104 págs. Editado en 1851 en la Editora de la Viuda de Mendizabal de Tolosa.

5. “Cristavaren Bizitza –Edo Bizitza Berria Egiteko Bidea” de Agustín Cardaberaz— 216 más, 88 págs., editado en la Editora de la Viuda de Mendizabal de Tolosa en 1854.

6. “Jesusen Biotzaren Devocioa” de Sebastián Mendiburu, e 402 págs., 2.<sup>a</sup> edición, en la Editora de Pedro Joseph Ezquerro de Pamplona. Repetido.

7. “Jesusen Amore-Nequeis Dagozten Otoitz Gai...”, 9 tomos encuadernados en pergamino en la Editora de Castiella de Pamplona: (Novenak? Mendiburu?).

Tomo 1.º, 276 págs. año 1760.

Tomo 2.º, 314 págs. año 1759.

Tomo 3.º, 338 págs., año 1759.

Tomo 4.º, 322 págs., 1759.

Tomo 5.º, 322 págs., año 1760.

Tomo 6.º, 324 págs., año 1760.

Falta 7.º.

Tomo 8.º, 346 págs., año 1760.

Tomo 9.º, 310 págs., año 1760.

Tomo 10.º, 314 págs., año 1760.

8. “Confesio Ta Comunioco Sacramentuen Gañean” por D. Juan Antonio Moguel —Cura de Marquina—; 266 págs., editado en 1800 en la editora de Viuda de Ezquerro de Pamplona.

9. “Versión Vasca de la Imitación de Jesús del P. Kempis” y 26 versos devis solemnisen doñuekin al Santísimo de Frai José Cruz de Echeverría, misionero de Zarauz, 508 págs., editado en Tolosa en la Editoria de la Viuda de La Lama en 1829.

10. “Doctrina Cristiana —Aita Astete— Ipiñi zuan Eusqueraz” de Juan de Irazusta-Párroco de Hernialde—; 96 págs., editado en Tolosa, año 1878, en Editora de Francisco Mugerza.

11. “Oracio Mentala —edo isilicacoa— Eguiteco Modua” —Escu Liburua—. Faltan las primeras páginas, por lo que no aparece ni fecha, ni autor, 350 págs. Tiene un hermoso, claro y fácil vasco guipuzcoano.

12. “Urruzonoco D. Miguel Apaizac “Ceruco Arguiya —edo ¡Ondo Pensatu! Berriya”— Padre Braudanden obra euskarara itzulia. Versión al eusquera de la obra del P. Baudrand itzulia “eternidadeco egui edo gaucen gañean Pensa bidea debozio batzuekin osatua” completada con algunas devociones. 256 págs., impresa en Tolosa el año 1895 en la editora de Francisco Munguerza.

13. “Argi Donea-Argiak saritua”, de Francisco Balzola. 782 págs., editada por “Argia” —Zornotza— Amorebieta, el año 1924.

14. Esku Diccionarioa (izendegua) eta gramática ere bai, “Diccionario-Manual-Euskera y Castellano” y elementos de gramática, 18.ª edición, de D.



Luis Astigarraga y Ugarte. 92 págs., impresa en Tolosa el año 1926, en la Imprenta de E. López.

15. “Kristau Ikasbidea”, del P. Astete, berritua eta iru zatitan jarria, renovado y dividido en tres ciclos, de la Diócesis de Pamplona (D. Blas Fagoaga), editado en Pamplona en 1936, en la editora Aramburu. (Bere ikasleei galde-egiñaz, beren herrietan ulertuko zen edo ez hitzak).

16. “Andre Mari Euskalerriko Mendietan”, de Aita Emiliano Karmee-darra, 266 págs. (1251-1951), editada en 1952 en los talleres “Echenagusia” de Bilbao.

17. “Argi-Bide-Txikia” de Zugasti, Apaizak. 142 págs., editado el año 1957 en Zarauz por la editora Itxaropena.

## B) Manuscritos vascos

1. “Elizaren laugarren Mandamentua Baraucearen gañean. Eta Amarrrena”, seis hojas en forma de cuadernillo, con preguntas y respuestas; sin fechas ni autor. Vasco correcto y esmerado. Parece copia de algún catecismo, katezismo batetatik itzulia.

2. 15. Amabost garren Doctrina: 1.<sup>a</sup> Esperanza cer dan, eta cer egin-tzen digun: 2.<sup>a</sup> Cer Eragozten digun: eta 3.<sup>a</sup> nola egercitatu bear degun. 6 hojas, lo mismo que el cuadernillo anterior.

3. Euskeraz idatzitako Katezismo bat, un Catecismo Vasco manuscrito, que sirve para D. Manuel Iriarte, beneficiado de Lacunza, año 1838.

4. Dos tomos encuadrados del mes de María de 226 y 192 págs. “Traducción y complementación del “Mes de María”, editado por la Compañía General de Impresores —año 1841—, Madrid. El primer tomo lo tradujo en 1851 y el 2.<sup>o</sup> en 1854. Autor, D. Juan Miguel de Gastesi y de Huarte, nacido en Irañeta el 28-IX-1798 en la casa Moxolorena (Lib. 3.<sup>o</sup> B. fol. 104 vto.) y Vicario de Lacunza desde el 1826 hasta 1861. Tuvo aquí un hermano, Pedro Juan, que dejó muchos descendientes en Lacunza. Murió en los Baños de Sobrón, Alava en 1861. Los 2 tomos están hechos para alternar años.

5. Unos 78 sermones manuscritos del mismo Autor.

6. 43 sermones de D. Mariano Percaz, natural de Odériz y Vicario de Lacunza desde el 30-IV-1862 al 18-IX-1877, en que murió en Lacunza. 4.<sup>o</sup> L. Dftos. fol. 3.

7. 15? Sermones de D. Martin Otermin Aldaya, natural de Inza, Vicario Interino de Lacunza desde el 30-IV-1877 a 11-VIII-1883, y en propiedad hasta el 18-IX-1904. en que muere en Lacunza (ibidem, fol. 92).

### C) Otros libros de interés especial en el Archivo Parroquial

1. "Constituciones sinodales del Obispado de Pamplona". Celebrado en la Iglesia Cathedral en el mes de agosto de 1590 y editado por Tomás Porrals el año 1591.

Encuadernado en pergamino (30,5 × 21,5 cms.); 192 págs. más varios documentos adicionales (30 págs.).

Aparte de su valor pastoral, doctrinal y administrativo, tiene un gran valor local y geográfico por las múltiples glosas manuscritas, referentes a los poblados que se citan en los folios 155 a 161. Desde luego, *Guipúzcoa y Fuenterrabía son dos arciprestazgos de Pamplona, y sin embargo no constan el Baztán, Regata y Cinco Villas, que dependían de Bayona.*

2. Primer Tomo de las Obras de Martín de Azpilicueta, Doctor Navarro (tío de San Francisco Javier), publicado con privilegio del Sumo Pontífice en la Tipografía de Jacobo Tornerij en Roma el año 1590.

Encuadernado en pergamino (25 × 26 cms.), de 9 + 908 págs. En la pág. 12 tiene su retrato y el elogio: "Insignis forma doctrina insignior unus. At superat summi cultus utrumque Dei".

#### DOCTOR NAVARRUS MARTINUS AB AZPILICUETA

(Insigne por la forma, más insigne y único por la doctrina. Pero supera ambas cosas el culto del sumo Dios - Doctor Navarro Martín de Azpilicueta).

3. "San Miguel de Excelsis, presentado com Principe Supremo de Todo el Reino de Dios en el Cielo, y Tierra, y Como Protector Excelso, Aparecido, y Adorado en el Reyno de Navarra". Libro Primero, por el P. Fr. Thomás de Burgui, ex Lector de Theología, de la Provincia de Capuchinos de Navarra, y Cantabria.

Editado en Pamplona el año 1774 en la Oficina de Joseph Miguel de Ezquerro, Impresor de los Tribunales Reales de su Magestad y sus Reales Tablas

Encuadernado en pergamino (29,5 × 21 cms.) 30 + 348 págs. Al principio tiene adosado un hermoso cuadro de 50 × 30 cms. con el "Verdadero Retrato de la Milagrosa Imagen de San Miguel de Excelsis", escenas de Teodosio de Goñi, "natural del mismo Reino año 714", y la leyenda de la aparición de San Miguel, dibujado por Fran. Preziado Hispan. Icones, impreso en Roma por Michael Serelló en 1740. Los adornos los halló Michael Fernández Hisp.

4. Sentencia de la Corte Mayor del Reyno de Navarra, reconociendo el titulo de hidalguía a D. Pedro de Lacunza, escribano de la Ciudad de Logroño, por ser descendiente de la casa Juan Toconea de Lacunza, por su bise-

buelo y de la casa Bulano, mayor, de Asteasu, por su bisabuela. Año 1687, siendo Rey Carlos II de España. Encuadernado en pergamino (30 × 25 cms.), manuscrito de 131 fols. Juan de Bulano fue el maestro cantero que restauró la parroquia e hizo la Torre grande en la segunda mitad del siglo 16 y tartarabuelo de Pedro de Lacunza. En las pruebas realizadas en múltiples lugares sobre un cuestionario de 12 preguntas a los testigos, se encierra gran parte de la historia de Lacunza y Asteasu en los siglos XVI y XVII.

#### D) Archivo Municipal

1. *Sentencia compromisal*. Pronunciada por el Señor D. Agustín de Leyza y Eraso, del Consejo de su Majestad, en el Real, y Supremo de este Reino, confirmada por el mismo, entre la Comunidad de Aranaz y la Villa de Lacunza. En Razón de la Partición del Monte llamado Galardía y amojonamiento. Año 1757. 27,5 × 20 cms., 274 págs. Impreso por Joseph de Ezquerro, Impresor de los Reales Tribunales.

Este libro tiene un gran *valor bibliográfico* por ser uno de los 8 ó 9 ejemplares editados.

Además tiene este libro un gran *valor histórico, geográfico, administrativo, etnológico* y social, por la gran cantidad de documentos que aporta desde el siglo XIV y el gran número de Batzarres que se celebran en cada municipio en cuestión y los temas que se debaten.



## BLAS ALEGRIAREN MENDEURRENA OSPATZEAN

*Lakuntzan, 1983, Otsailak 19*

*Fr. Luis Villasante*

### **Euskaltzainburuaren Hitzak**

Juan Mari Ganboa, Lakuntza hiriko Alkate jauna

Lakuntzarrak

Euskaltzainkideak, eta Blas Alegriaren goratzarrera etorri zareten Jaun-Andreak:

Ospakizun honetako azken hitzak esatea bide dagokit. Blas Alegria, hiri honetako semearen oroitzapenetan antolatu dugu gaurko besta hau. Hura hemen sortu zela, ehun urte bete dira oraintxe. Haren euskal lanak, euskal zaletasuna, euskara lantzeko eta sendotzeko egin zituen ahaleginak gogoratu ditugu; bide batez, euskarak Lakuntzan dituen erro sakonak aztarrenatu ere bai, pixka bat behintzat. Hemen entzun diren hitzaldiek argia ibaika isuri digute bai Blas Alegriaren nortasunaren gainean, eta bai Lakuntzako hiriaren euskaltasunaren gainean ere.

Euskaltzaindiak –Euskararen Akademiak– honelako paradak –hots, mendeburuak edo zentenarioak, euskaltzain edo akademiko berrien sarrera -hitzaldiak etab.– hartzen ditu aitzakiatzat gisa honetako ospakizunak antolatzeko. Duela bi urte ospatu zen Altsasun Aita Frantzisko Ondarraren Euskaltzaindian sartzea. Dakizutenez, Bakaikuko semea da Aita Ondarra, Euskaltzaindiko lagun fina. Hiru urte izango dira laster Nafarroan beste bi ospaketa egin zirela: bata Beran, Berako euskal besten ehun urteak gogoratzeko, eta bestea Adoain eta Santa Fen, Aita Esteban Adoaingoaren oroitzapenetan. Sakanan, berriz, Nafarroako Sakanan, oker ez banago, ez da gaur arte Euskaltzaindia sekulan bildu.

Sakana dugu eskualde bat guztiz berezia, bere aintzinasunaz eta sonaz hagitz aipatua. Iragan-bide eta pasaia-leku, har-eman handiak ezagutu dituen eskualdea da Sakana. Eta Sakana honetan dugu Lakuntza. Oihartzun handiko izena berau ere. Neretzat behintzat bai. Arantzazun bizi naiz eta badakit nola alde hauetatik erromes multzoak joaten ziren hara mendiz, San Adrian-

go koba zuloan barrena. Agertuak dira Arantzazuko aldizkarian hortaz artikulua (1).

Aita Julian Alustitza, Arantzazuko fraideak, ateraberi du euskaraz liburu bat: *Lihoaren penak eta nekeak* (2). Liho lana gure baserrietan nola egiten zen eta langintza honen inguruan loraturik egon den poesi mundua azaltzen da bertan. Liburu horretan datoz Joaquín Andueza, Lakuntzako semeak, liburu egileari eman zizkion xehetasunak.

Lakuntzako lihoa oso bikaina omen zen eta horregatik estimu handitan zegoen Gipuzkoan eta beste lekuetan. Halako ateraldi polit bat ere azaltzen da liburu horretan. Etxe bateko gizona bere alkandoraren bila omen zebilen. Eta ez azaltzen inondik ere. Andreak erasotzen dio: Hiru alkandora izaki, eta nun sartu dituzu ba? Eta gizonak: Hiru alkandora? Bai. Bat soinean; bestea ez dakit nun den. Eta hirugarrena Lakuntzako herrian, eta hazitan omen dago, gainera, oraindik (3).

Sona handiko herria zen nunbait Lakuntza.

Baina lihoaren haria alde batera utzirik, lot gaitezen geure harira. Euskaltzaindiak honelako ospaketak antolatzen dituenean nahi du, besteak beste, euskara zaharraren erro eta zainak sendotu, bizkortu. Zer egoeratan aurkitzen da gaur euskara Lakuntzan? Nik ez dakit. Segur aski ez guztiz ongi. Oraindik denbora asko ez dela, Beasaingo estazioan bi neskek galdetu zidaten ea zer aldetara hartu behar zuten trenan Lakuntzara joateko. Erdaraz hitz egin zidaten. Beren galderari erantzun ondoren, galdetu nien ea euskararik ote zekiten. Ezetz esan zidaten. Ulertu bai, baina hitz egiten ez zekitela...

Euskarari, bertako hizkuntza propioari, izerdi berria zainetan sartzea: hori da gure asmoa eta nahikari bizia. Herri guztiek zaintzen eta lantzen dituzte maitekiro beren mintzairak, beroietan herriaren irudia eta ispilua ikusten dutelako. Inork ez du, bada, zer harriturik, Euskal Herri honek ere bere mintzaira zaharra bizirik atera nahi baldin badu.

Euskararen aldeko ekintza hau, ordea, ez da hartu behar ezeren edo inoren kontra joateko arma balitz bezala. Ez. Ez da hala. Eta euskararen auzia politizatzeak ez dakar berekin ondorio onik. Euskara Euskal Herriaren ondasuna da, baita Nafarroarena ere. Ondasun hau guztiona da, eta alderdikeria guztien gainetik atxiki behar dugu. Ez dadila, bada, multzo itxi baten bandera bihur.

\* \* \*

(1) AZTIRI: "Sakanatik Arantzazura erromes", *Arantzazu* (1975), 286-287.

(2) JULIÁN ALUSTITZA, "Lihoaren penak eta nekeak", *Jakin*, Arantzazu, Oñati, 1981.

(3) "Lihoaren penak eta nekeak", 36. orr.

Nafarroan gaudelarik, nahi dut gaur ofizialki iragarri heldu den urtean betetzen direla ehun urte Arturo Kanpionen euskal Gramatika famatua argitarara zenetik. Hori dela eta, Euskaltzaindiak euskal Gramatika aztertzeke Kongreso handi bat antolatzeke asmoa du. Kongreso hori, segur-aski, heldu den urtean eta Iruñean egingo da, Arturo Kanpion jauna iruinxeme zenez.

Gure egunotan Euskaltzaindiak zeregin handi eta larriak darabiltza eskuen artean. Bat —handiena, beharbada—: euskararen normalizapena egitea, mintzaira zahar hau gaur-eguneko arazo guztiak adierazteko tresna egoki eta trebe bihurtzea. Ekintza handi horren barnean sartzen da Iruñeko Kongreso hori ere, euskarak nahi eta behar duen Gramatika lehen-bai-lehen izan dezan. Behar dugu, alegia, euskararen gramatika, ez euskalki honen edo horren gramatika, guztion euskararena baizik. Beste aldetik, Euskaltzaindia saiatzen da, baita ere, tokian tokiko euskara muetak biltzen eta aztertzen, eta berdin euskalkiak lantzen ere. Berak badaki tokian tokiko hizkerak eta euskalkiak euskararen parte bat direla, ondasun bat direla, eta horien aurrean ezin dagoke axolakabe. Maite ditu, jasotzen ditu eta ahal duen neurrian gorde nahi ditu.

Badakit sobra ere gaur-eguneon bi aldeetatik heldu zaizkiola ostikoak eta ahapaldiak. Batzuei ez zaie ongi iruditzen gu euskara batuaren langintzan aritzea; besteei, berriz, ez zaie ongi iruditzen euskalkiez eta tokian tokiko hizkeraz gu arduratzea. Guretzat batak ez du bestea kentzen, ordea. Gure ustez, zeregin guzti hauek ez dira bata bestearen etsai eta bai elkarren osagarri, eta hala esan diezaiokegu bat ere ahalkerik gabe kontu eske datorkigunari.

\* \* \*

Eta besterik ez. Bukatzeko, eskerrak eman beharrea naiz bihotz-bihotzez Juan Mari Ganboa alkate jaunari, egin digun harrera ezin hobeagatik, eta Eugenio Ulazar eta Luis Igeltz jaunei beren lan mamitsuengatik. Jainkoak nahi badu, Euskaltzaindiaren aldizkarian agertuko dira lanok. Eskerrak, azkenik, Lakuntzako hiriari eta ospakizun eder honetan partaide izan diren guztiei.

Blas Alegria baitan, bai Lakuntzak eta bai Sakana guztiak ere, ikus dezala eredu eta ispilu bat euskaltasunari leial egoteko. Halabiz!





## **BLAS ALEGRIAREN OMENEZ**

*Lakuntza, 1983-II-19*

*Juan M.<sup>a</sup> Ganboa  
Lakuntzako Alkate Jauna*

### **Alkate Jaunaren ongi etorria**

Jaun argi eta agurgarriak:

D. Blas, en ehun urte betetze hontan, Euskalzaindia gure artean aurkitzeak, asko esan nahi du Lakuntzako herriarendako.

Danok pozten gara eta ongi etorriak izan.

Euskeraren eta gure Herriaren alde D. Blasek egin zuenak, merezi duela, uste dugu.

Egun hau eta D. Blasek egin zuen lana, euskeraren eta gure Herriaren bideak zabaltzeko izan daitezela.

Euskaltzaindia, eta gurekin gaur hemen aurkitzen zeraten guztiok, ongi etorriak izan; eta Lakuntzako herriaren izenean, eskerrik asko!